

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 468

*94/2024 EBAZPENA, abenduaren 20koa, Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez hutsik uzten baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gorlizko Ospitalean Mantentze-lanetako eta Instalazioetako Azpitaldeko Buru lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia.*

#### AURREKARIAK

Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerentearen 2024ko abuztuaren 2ko 64/2024 Ebazpenaren bidez, Gorlizko Ospitaleko Mantentze Lanetako eta Instalazioetako Azpitaldeko Buru lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia argitaratu zen. Deialdi horretan emandako epearen barruan ez da aurkeztu parte hartzeko baldintzak betetzen dituen hautagairik.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean dagoen legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1.e) artikulua (azaroaren 14ko EHAA, 219. zk.) eta deialdia arautzen duten oinarrien arabera,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hutsik uztea Gorlizko Ospitaleko Mantentze Lanetako eta Instalazioetako Azpitaldeko buru lanpostua betetzeko deialdia, ebazpen hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean eta EHAAan argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gorliz, 2024ko abenduaren 20a.

Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerentea.

EB (3433/2004 Ebazpena, abenduaren 13koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerentearen edo zuzendarien karguak hutsik edo kargudun horiek kanpoan zein gaixorik daudenerako ordezkapen-erregimena ezartzen duena).

Gorlizko Ospitaleko zuzendari medikoa,  
MARIA ISABEL MONTES ÁLVARO.